



zap

2022ko ekaina - 21. zenbakia

Gizuetako
adizkaria



Lehengoari eutsiz, eta berriari atea irekiz



2

zenbaki honetan



• Argitaratzailea:

Goizuetako kultur taldea
eta Goizuetako Udalaren
Euskara Zerbitzua

• Irudiak:

Aitziber Lekuona, Alaitz
Eskudero, Eider Loiarte,
Eli Apezetxea, Euskara
zerbitzua, Felix Loiarte,
Itsaso Lujanbio, Lurdes
Loiarte, Miguel Jose
Lekuona, Xalpo
ikastetxea, Xenpela
Dokumentazio Zentroa

• Diseinua:

Allende Arnaiz

• Maketazioa:

astidiseinua.com

LG NA 742-2016



aurkibidea

- **3** Aurkezpena
- **4-7** "Xalpo" eskolako kultur aniztasuna
- **8-12** Bidaia: Egipto, Costa Rica eta Nikaragua
- **13-16** Korrika iruditan
- **17** Apelliduak abizendu
- **18-19** Katarrapikaka
- **20-21** Zenbat euskara entzuten da Goizuetako kaleetan?
- **22-23** Betso txokoa
- **24-25** Atzera begira
- **26-27** Ezetz asmatu
- **28** Zure txanda





Lehengoari eutsiz, eta berriari atea irekiz



Itxitsi da zure eskuetara 2022. urteko XAPO aldizkaria. Aurreko 20 zenbakietan egin genuen moduan, honetan ere Goizueta lotutako kontuak ekarri ditugu, batzuk garai batekoak, beste batzuk gaur egungo errealitateari oso lotuak. Izan ere, Goizueta hori da, iragana, oraina eta etorkizuna.

Atzera begira jarri gara 1963ko bertso txapelketari begiratzeko, Xalto izan baikenuen protagonista nagusietako bat. Atzera begira, noski, izen bereko atalean, Xabier Amurizaren artikulutxo bat berreskuratuta. *Ezetz asmatu* atalak ere, ohi bezala, urte ba-

tzuk atzerago eramanen gaitu, nor den nor asmatu nahi horretan. Eta gauza bera egingen du *Goizueta iruditan* argazki bildumak, Korrikako edizio ezberdinetan egindako argazkiak erakutsiko baitizkigu.

Gaurko kontuak dira, berriz, Miguel Jose Lekuonak egindako bidaiaren kronika, euskararen kale neurketari buruzko datuak eta ondorioak, abizenak euskal grafiaz jartzeko proposamena, eta kontrazaleko elkarriketak. Guztiak ere, jakina, interesgarriak eta jakingarriak.

Eta gaurko kontuak izan arren,

etorkizunera begira jartzen gaituzte aldizkariko beste bi atalek, Goizueta-ko Xalto ikastetxeak egin eta landutako artikulua hain zuzen ere, protagonistak eskolako haur eta gaztetxoak direlako, eta haiek direlako herriaren etorkizuna. Artikulu batek *Katarrapikaka-ttiki* lehiaketaren kronika egin digu, eta besteak kultur aniztasunari buruz hitz egin digu.

Horixe duzu, bada, irakurle hori, XAPOk aurtengo dakarren edukia. Zure gustukoa izanen delakoan, orrialde hau pasa eta irakurtzen jarraitzea gonbidatzen zaitugu.



"Xalto" eskolako kultur aniztasuna

"Xalto" eskolako kultur aniztasuna geroz eta handiagoa da egunetik egunera.

Goizuetako eskolako kultur aniztasuna areagotzen joan da azken 5-6 urte hauetan zehar. Beste herrialde batzuetako jendea etorri da Goizueta eta Aranora bizitzera eta horiekin batera hizkuntza eta kultur desberdinak ekarri dituzte gure herrira, adibidez: frantsesa (Senegal), ukrainera, gaztelania (Nikaragua, Honduras, Kolonbia), portugaleria (Brasil), errumaniera...

Maria izan zen eskolara lehen etorri zena. Bera bere gurasoekin etorri zen Brasildik, eta orain euskara ederki daki. Gero Iker

HONA HEMEN DATU ZEHATZAK:

IZENA	NOIZ	NONGOA	KURTSOA
Maria Fonseca	2018an.	Brasil	LH 6
Iker Flores	2019an.	Honduras	LH 3
Andrea Lazar	2019an.	Errumania	LH 2
Bianca Lazar	2019an.	Errumania	HH
Eunice Merticariu	2019an.	Errumania	LH 1
Lois Merticariu	2019an.	Errumania	HH
Yamani Corea	2021ean.	Honduras	DBH 2
Gabriela Murillo	2021ean.	Kolonbia	LH 2
Flor Rivera	2021ean.	Nikaragua	LH 3
Sokhna Sow	2021ean.	Senegal	HH
Miroslava Pisarserska	2022an.	Ukraina	HH
Yevheniia Zhadko	2022an.	Ukraina	HH
Mark Paviliushyn	2022an.	Ukraina	LH 1
Ivan Kurianovych	2022an.	Ukraina	LH 1
Platon Kurianovych	2022an.	Ukraina	LH 1
Vitor Oliveira	2022an.	Brasil	LH 6
Miguel Oliveira	2022an.	Brasil	HH

erreportajea

etorri zen, Hondurastik. Ondoren, Eunice eta Lois Errumaniatik. Geroago, Andrea eta Bianca etorri ziren, Errumaniatik horiek ere. Ondoren Yamani, Hondurastik. Beranduago, Flor Nikaraguatik. Eta ondoren Gabriela, Kolonbiatik. Gero, Sokna, Senegaldik. Gainera, Maria Eduardaren lehengusua ere etorri da aurten, Vitor, bere bi anaiekin batera Brasiletik. Eta azkenik, familia desberdinetako parte diren Ivan, Platon, Mark, Yeuheniia eta Miroslava, Ukrainatik.

Beraiek emandako informazioaren arabera, arrazoi edo egoera desberdinetatik etorri dira Goizueta edo Ararona bizitzera, hala nola, bizi hobe baten bila, lan bila, diru gehiago eta bizi kalitate hobe baten bila, familiakoak ezagutzera, gerratetik ihesi... Arrazoi ugari eta anitzak, ikusten duzuen bezala. Garbi azaldu digute erabaki hau hartzea eta aldaketa hau egitea ez dela "ahuntzaren gauerdiko eztula" izan inondik inora. Haien herria, familia, lagunak, ohiturak, hizkuntzak... dena utzi behar izan dute atzean hona etortzeko.

Familia bakoitzak bere bidea bere modura egin du honaino iristeko, batzuk abioiez, besteak trenez, autobusez, autoz, itsasontziz...

Eta, nola komunikatu ote gara beraienekin? Hori ere galdetuko zenuten batzuek honezkero?

A ze nahaste-borrastea! Elkarri gauzak esan nahi eta elkar ezin ulertuz hasieran. Mimika, piktoak eta hitz solteak erabiliz lehenik, gaztelanieraz eta ingelesez komunikazioa ezinezkoa zenean. Hitz batek hizkuntza desberdinetan esanahi desberdinak hartzen dituela ere konturatu gara maiz, guk esandakoarekin parrez lehertzen hasten ziren batzuk, ez genien ulertzen, baina beraien hizkuntzan zer esan nahi zuen esaten zigutenean denak parrez bukatzen genuen.

Irakasleek ere bazuten nahikoa lan! Google itzultzailea ederki erabili dute hasierako egunetan! Teknologia berrien onuretako bat zein izan daitekeen ederki erakutsi digu honek!



Pixkanaka-pixkanaka gure hizkuntza eta euskalkia ikasten ari dira, eta gu beraienak ere ikasten saiatzen ari gara denok elkar ulertu eta komunikatu ahal izateko. Garbi daukaguna zera da, beraien **EUSKARAZ** hitz egitea dela bidea, beraien gurean hobeki integratu eta bizi ahal izateko. Zuek denok ere gauza bera egiteko gonbita luzatzen dizuegu hemendik.

Beraien kulturari buruz gehiago jakin nahi genuen bidenabar, ikasle bakoitzari euren herriko janari tipikoak zein diren galdetzen aritu gara, beste

gauza batzuen artean. Berez, eskolan **"kulturartekotasun festa"** egiteko aukera polita eta aberatsa eskaintzen digula ohartu gara. Tamalez, Covid protokoloak oraindik ez dizkigu ate guztiak ireki eta datorren ikasturteari begira, egun berezi bat antolatzea pentsatu dugu.

Hori dela eta, beraien erantzunetan jarri dituzten janari ezagunak aztertzen aritu gara eta etxean probatu edo prestatzen saiatu nahi izanez gero, hemen bidaltzen dizkizuegu ideia batzuk!!

Dasta itzazu beste herrialdeetako plater gazi-gozo hauek!



6

erreportajea



TAMALAK

FEIJOADA

Feijoada Brasilgo sukaldean oso ezaguna den jaki bat da. Txerri haragiarekin egiten da eta normalean arrozarekin eta farofarekin laguntzen du.

Brasilen feijoada larunbatean jateko ohitura dute. Horrez gain tabernatako menuetan ere jartzen dute.

Plater hau nahiko merkea da eta gizarte-klase guztiek dastatzeko eta gozatzeko aukera ederra eskaintzen du.

Tamalak Kolonbia herrialdeko janari tipikoa dira.

Landare hostoetan bildutako jakiak dira. Barrualdea artozko masaz, haragiz, barazkiz, saltsez eta bestelako osagaiez betetako arrozarekin egiten dira. Tamalek zapo gozo-gazia dute.

KHOLODETS'

Kholodets' Ucraniako plater tipikoa da. Entsalada eta gelatinaz eginda dago. Erroskillaren forma du erdialdean zuloa baitu. Janari hau Eguberrietan jaten da normalean.

SARMALE

Ukrainako janari tipiko bat da. Errumanian eta Errusian ere jaten da. Erroskilla batzuk dira, saltsa ere badute eta haragia ere bai. Jendeak zerbait gehiago sartzeagatik, tomatea jartzen dio. Normalean aperitibo moduan jaten da. Dastatu nahi izanez gero, bi aukera dituzu, bertara bidaiatu edo hemen bertan prestatu eta jan!

LA BALEADA

Baleada Hondurasko janaririk adierazgarrienetako bat da. Gutxi gorabehera esku bateko diametroa duen gari-irin tortillaz osatuta dago, erditik tolestuta eta babarrun frijitu eta bestelako osagarriekin beteta. Oinarritzko errezetak Hondurasen nahiago dituzten babarrun gorriak ditu, gurina edo gazta birrinduarekin, baleada sinplea deitzen zaio honi.



SALO

Salo Ukrainako janari eza-guna da, beti edozein jabe-ren mahai-zapian dagoena. Salo animalia-koipe bat da, normalean txerri-koipea. Urdai errezeta asko daude: gazia, ketua, frijitua eta egosia izan daiteke. Bere osagaiak urdaia, baratxuria eta piperbeltzak dira, hala ere, beste modu askotan egin daiteke.

AJIACO

Kolonbiako janari tipikoa da Ajiaco. Patata mota desberdinak (criolla, pastusa eta sabanera) dituen oilas-ko zopaz osatuta dago, eta bakarrik edo krema eta ozpinetako kapperekin zerbitzatu daiteke, normalean buztinezko ontzietan. Ajiacoak arto samurrak ere sartzen ditu normalean.

NAKATAMAL

Nakatamala Nikaraguako plater tipikoa da. Haragiz, barazkiz eta arroz osatutako masa bat da, banana edo banano hostoetan bilduta egosten diren zatietan banatuta. Larunbatetan, igandeetan, jaiegunetan edo Gabonetan jaten dira.

ON EGIN!

Datorren ikasturteari begira, kulturartekotasun festa antolatzeke nahia agendan apuntatuta uzten dugu, baina herri mailan ere horrelako zerbait antolatzea polita izanen zela ikusten dugu: "Bertako eta atzerriko janarien topaketa!"

Guk gure hordagoa hor botatzen dugu!

Eta ez ahaztu, **aniztasunak aberastu egiten gaitu!**

LH 5-6

* Eskerrik asko lan hau egiteko informazioa eman diguzuen guztioi (kolonbiar, nikaraguar, hondurar, brasildar, senegaldar, errumaniar eta ukrainar).



Egipto, Costa Rica eta Nikaragua: basamortu zuritik oihan berdera

Xapon ez da inoiz falta izaten herri-
tar bidaiariren baten kontakizun-
nik. Oraingoan Pauleneko Miel Jo-
xerekin izan gara, azken aldian bidaia-
tzeari fuere eman baitio: Egipto, Nika-
ragua eta Costa Rican izandu da. Ea zer
kontatzen digun!

**Egipto eta Ertamerika. Munduan hain-
beste toki izaki, zerk eraman zintuen
paraje haietara?**

Egiptoko kasuan, basamortuan ibiltzeak
erakartzen ninduen eta merezi izan du. Ni-
karagua eta Costaren kasuan, sorpre-
saz beteriko herrialdeak dira naturazaleen-
tzat. Ur-jauziak, sumendiak, baso galantak
eta ametsetako hondartzak, nik uste, plane-
tako biodibertsitate aberatsenetako bat osa-
tzen dutela.

**Herrialde bakoitzeko toki bat aukeratu
beharko bazenu, zein aukeratuko zenuke?**

Basamortu txuria, Egipton. Ziprztindutako
espazio birjin eta amaigabeak... Hala da
Egiptoko Basamortu Zuria, ametsezko leku-
rik ederrenetako bat.

**Zer moduzko esperientzia izan da bakarrik
bidaiaitzearena?**

Bakarrik bidaiaitzea da beldurrik handiena
eman dezakeen esperientzietako bat, nire ka-




Oinez, basamortuan.





Basamortu zuria.



Arenal sumendia, Costa Rica.



Ur-jauzi dotoreak eta berdea nonahi.



Costa Rica, ilunabarra.





Basamortu zuria bere eskulturekin.

suan behintzat, erabakia hartzea ere kostatu zitzaidan, baina zalantzarik gabe zure bizitzako bizipen polit eta aberasgarrienetako bat eskaintzen dizu, gehiago irekiarazten zaitu. Eta alde onak ere baditu, ez diozu inori azaldu/adostu behar zer egin behar duzun.

Bisitatu dituzun herrialdeetatik zeinek izango luke Goizuetaren antzik handiena? Zertan?

Costa Ricak eta Nicaraguak dute antzik handiena Goizuetarekin, hezetasuna, kolorea, zuhaitzak, ura... Tenperaturan ez dute antzik, 25°tik ez dira jaisten eta.

Turista gisa ibiltzeaz aparte, izan al duzu bertako benetako errealitatea ezagutzeko aukerarik?

Goizuetan egondako neska baten herria eta familia ezagutzeko aukera izan niten. Nicaraguan izan zen. Eta han ikusi nuen benetako errealitatea. Hau da diruz aberatsak ez, baina bihotzez zoriontsuak. Gogorazi zidan garai batean Goizuetan bizitako estiloa. Batzuk abeltzaintzaz bizi dira eta besteak nekazaritzaz. Auzokideen artean elikagaiak trukatzan dituzte. Horrez gain, karreterarik ez dute, ura mugatua, argindarra eskasa, oso sinestunak...

Beraz, bizi estilo nahiko xumea. Baina harrera bikaina eta goxoa egin zidaten, etxean bezala sentiarazi ninduten.



Costa Rica, Parke nazionala.




Costa Rica, Manuel Antonio hondartza.

Tortuguero erreka eta Karibe
itsasoa, Costa Rican.



Basamortuko irudi harrigarriak.





Nicaragua, Ometepe uhartea, sumendiarekin.

Costa Rica planetako herrialde zorionsuenetakoa omen dela diote azterketa batzuek. Ados al zaude? Zuk ere nabaritu al duzu?

Niri hala iruditu zait, zorionsu di-rela. Estatu bezala halako aberas-tasuna izanik, batez ere duten ura-gatik, argindarra adibidez uraren bitartez lortzen dute (% 95). Beraz, herrialdea bera aberatsa da baliabi-deetan. Eta beraiek oso harro daude beren herrialdeaz, paisaia natura-lak, ibaiak... eta harrera oso goxoa eta alaia egin zidaten, berezkoa dute-la esango nuke.

Zer gomendatuko zenieke toki haue-takoren batera bidaiatzeko txirrintxa sortu zaien irakurleei?

Niri ibiltzea gustatzen zaidanez, Egip-toko basamortu txuria izugarri gusta-tu zait.

Costa Rican, aldiz, oihan asko ditue-nez ibiltzea zailagoa izan da. Eta gai-nera garestia iruditu zait Costa Rica Nicaraguaren aldean. Hori ere datu interesgarria da bakoitzaren sakelari



Nicaraguako hondartza (Montelimar).

begira. Nicaragua, gainera, ez dago hain masifikatua, turismo gutxiago dauka eta beraz lasaiagoa.

Hurrengo bidaiara nora?

Hurrengo bidaiara mendia egiteko as-motan, ez dakit oraindik Pakistan (Glaciar del Baltoro, K2) edo Nepal (Trek Manaslu), ikusiko dut ea non bukatzen dudana.

Pura vida?

Con gusto, pura vida. Costa Rican era-biltzen den hitza da bai. Izugarri gusta-tu zait nola erabiltzen duten gainera. Bere esanahia ongi etorria emateko, egun on esateko erabiltzen dute, agur-tzeko alegia. Baina hortik haratago, oso zentzu positiboa du, bizitzaren alde txarrari ona ikusten diote eta agurtzeko modu horretan ere antzematen da eu-ren kultura, alaitasuna eta goxotasuna.

Goizueta iruditan



2001. urtean.

Bi urte KORRIKArak ga-be egon ondoren, aurt-en 22. edizioa egin da, eta goizuetarrak, ohi bezala, bertan izan gara. Irudi ederrak uzten ditu KORRIKAK beti, eta aurt-en ere hala izan da. Euskararen aldeko ekimen jendetsu eta alairik baldin bada, KORRIKA da hori, eta argazkiek ere hala erakusten dute.

Aurtengo edizioko argazkiekin batera, aurreko beste urte batzuetakoak ere ekarri ditugu. Gehienetan gure herriko mugen ingurutik pasatzen da, baina inoiz herritik ere pasatu izan da. Herrigunean izan edo herritik urruti-zeago, nolanahi ere, goizuetarrak beti bertan eta beti gustura, irudiek erakusten duten bezala.



2022. urtean.



2001. urtean.



2001. urtean.



2001. urtean.



2009. urtean.



2001. urtean.



2022. urtean.



2022. urtean.



2022. urtean.



2001. urtean.



2001. urtean.



2005. urtean.



Apelliduak abizendu

Garai batean etxe guztietan hain ohikoa zen telefono-aurkibide gizen hura nahikoa desagertua dago. Eskura izanen bagenu, ikusiko genuke Goizuetan era guztietako abizenak daudela. Gehienak euskaldunak izanen dira ziur asko, baina baditugu erdal jatorrikoak ere, gaztelaniazkoak, baita beste hizkuntza batzuetakoak ere.

Euskaldunak diren horiek hartuz gero, berehala ohartuko gara abizen bera bi modu ezberdinetan idatzita ikusten dela sarritan: Etxeberria edo Echeverria; Alduncin edo Alduntzin; Loiarde edo Loyarte; Goikoetxea edo Goicoechea... Alegia, batzuetan abizenak euskal grafiarekin ikusten ditugu, eta beste batzuetan, berriz, erdal grafiarekin.

Ziur asko, oraintxe herritarrei galdetuz gero beren abizena nola idatziko luketen, edo nola nahiko luketen idaztea, baita ofizialki ere, gehienek euskal grafia nahiagoko lukete. Ez denek, ziur, izanen da erdal grafiari eutsi nahiko diona, baina normalena eta logikoena ematen du euskal abizena dena euskal grafiaz idaztea, ingelesa dena ingelesez idazten den bezala, edo frantsesa frantsesez.

Errealitatea, ordea, bestelakoa da:

jende askok eta askok bere izen-abizenak, euskaldunak izanagatik, NAN eta bestelako agirietan erdal grafiaz idatzita dauzka, aspaldi horrela izan behar zuela ezarri zelako, eta garai batean euskal grafiaz jartzeko aukerarik ez zelako. Eta gurasoena, bestalde, seme-alabei transmititzen zitzaion. Horrela iraun du kateak, duela ez hain beste arte.

Gaur egun, ordea, badago hori aldatzeko aukera. Euskal abizenen grafia euskaraz idazteko eskubidea dugu, eta nahikoa erraz egiten den tramitea da. Gainera, seme-alabarik izanez gero, haien abizena ofizialki ere euskal grafiaz idatzitakoa izanen da.

Eta zergatik egin urrats hori, aldaketa hori? Alde batetik, logikoa delako, eta zentzuzkoa dirudi, abizen bakoitza dagokion hizkuntzaren grafian idaztea; bestetik, euskal abizenak erdal grafiaz egoteak adierazten duela, eta etengabe gogorarazten digulako, hizkuntza bat bestearen gainetik ezarri dela eta haren lurralde propioa ere bereganatu duela. Euskal abizenak erdal grafiaz agertzea euskararen izaera gutxituaren adierazgarria da eta, neurri batean, euskara "ezkutatu" egiten du eta gure hizkuntzaren izaera gutxitua azpimarratu.

Lehen esan dugun bezala, gure abizenen grafia aldatu eta euskal grafiara egokitu nahi badugu, egin beharreko urratsak errazak dira. Hauxe da egin beharrekoa:

1.- Joan bizi zaren herriko Erregistro Zibil edo Bake Epaitegira eta esan abizenak euskaraz jarri nahi dituzula.

2.- Eraman agiri hauek:

- NAN originala eta haren fotokopia.
- Gurasoen NANaren fotokopia, adinez nagusia ez bazara.
- Seme-alaben NANaren fotokopia, 16 urtetik gorako seme-alabak badituzu.
- Hitzek hitzeko jaiotza ziurtagiria: bizi zaren herri berean inskribatuta ez bazaude.
- Errola-agiria. Adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere bai.
- Familia-liburua eta haren fotokopia: Ezkonduta bazaude edo/eta seme-alabarik baduzu.

3.- Erregistro Zibilean edo Bake Epaitegian emango dizuten eskaera orria zure datuekin bete.

4.- Tramitazioa bukatu ondotik NANA eta gainerako dokumentazioa berriro ahaliko duzue, eta seme-alabei automatikoki abizena behar bezala erregistratua geldituko zaie.

Behin egin, eta betiko!



Lehiaketako parte-hartzaileak. (Arg. Felix Loiarte).

KATARRAPIKAKA

Aurten lehenengo aldiz hartu dute parte Katarrapikaka lehiaketan DBH-ko ikasleek.

Zer da Katarrapikaka?

Katarrapikaka, Goizueta, Arano eta Artikutzari buruzko informazioa bildzen duen lehiaketa bat da. Horretaz gain, Katarrapikaka, berez, joko baten izena da. Espazio txiki batean pertsona batek, begiak itxita, beste bat harapatzen saiatu behar du eta nor den asmatu behar du.

Lehiaketa hau bi urtetik behin egiten da. Lehenengo lehiaketa duela 5 urte izan zen, 2017an. Hala ere, duela 2 urte, 2020an ere egin behar zen, baina Covid-19aren egoerarengatik ez zen egin. Zorionez, aurten, lehiaketa egin ahal izan da eta DBH-ko ikasleek parte hartu dugu.

Gure esperientzia

Hasteko, hilabete batzuk lehenago, Katarrapikaka lehiaketan parte hartu nahi genuen galdetu ziguten. Klaseko guztiek baiezkkoa eman genuen. Bestetik, 13 lehiakide ez ginen nahikoak eta beste batzuei galdetu genien parte hartu nahi ote zuten. Galdetutako bi pertsonak baiezkkoa eman ziguten. Hala, lau partaideko hiru talde eta hiru partaideko talde bat egin genituen. Lehiaketaren aurreko egunean, gure taldeko kolorea zeraman kamiseta eman ziguten; talde morea, horia, berdea eta urdina izan ziren azkenean.

Eskolan

Katarrapikakako lehiaketa egin baino aste pare bat lehenago, eskolan lehiaketarako prestatzen hasi ginen. Goi-

zuetako eta Aranoko auzoak, biztanleak, historia, hitzak eta esaera zaharrak ikasten eta errepasatzen. Gainera, herriko etxeak ikustera atera ginen kanpora. Katarrapikaka lehiaketa zen egunean, goizean, eskolan lehiaketa txiki bat egin genuen. Oso ongi pasa genuen, oso entretenigarria eta interresgarria izan zelako.

Lehiaketa egunean

Lehiaketa martxoaren 25ean izan zen, arratsaldeko 18:30ean, herriko udaletxeako ganbaran. Ordu erdi lehenago, udaletxeako ganbarara igo ginen. Ikusle guztiak, pixkanaka, ganbarara igozen ziren bitartean gu beheko pisuan geunden. Han geunden bitartean, antolatzaileek, gutxi gorabehera lehiaketaren nola izango zen eta ganbarara zer ordenatan igoko ginen esan ziguten.



Lehiaketa aurkezteko unea. (Arg. Felix Loiarte).

Igotzeko ordua zenean, oso urduri geunden. Taldeka igo ginen, talde berdea, morea, horia eta urdina, hurrenez hurren. Gure tokietan jarri ginenean, ariketak azaltzen hasi ziren Naroa eta Maialen, lehiaketako aurkezleak. Hasiaren oso urduri geunden, baina lehiaketa aurrera joan ahala lasaitzen joan ginen.

Lehiaketan 10 ariketa zeuden. Lehenengo ariketa Katarrapikakan ibiltzea zen. Ondoren, beraiek galdetutako Goizueta, Arano eta Artikutzako galderak erantzun, etxeen izenak asmatu, auzoak asmatu, mimika eginez hitz batzuk asmatu, jendeari objektuak eskatu eta beste hainbat ariketa egin genituen.

Irabazleak

Lehiaketa oso lehiatua egon zen. Azkenik, lehiaketa irabazi zuen taldea talde horia izan zen. Saria 450€-koa izan zen, denen artean elkarbanatzeko saria. Talde irabazleak, hau da, talde horiak, ekintza kultural bat aukeratu du eta denok gozatuko dugu horretan. Horretaz gain, edalontzi bat ere eman ziguten.

DBHko ikasleak elkarlanean



Lehiaketako momentu bat.

Zenbat euskara entzuten da Goizuetako kaleetan?

Goizuetarrak badaki, eta bertara hurbilduko den beste edonork ere aise sumatuko du: euskara da Goizuetako kaleko hizkuntza, euskara da nagusi Goizuetako kaleetan. Zehazteko eskatuz gero, eta entzuten diren elkarrizketetatik zenbat egiten diren euskaraz eta zenbat beste hizkuntza batzuetan galdetuz gero (gaztelaraz batez ere), agian hor adostasuna ez da hainbestekoa izanen. Ziur asko denek esanen dizute oso ehuneko altua dela euskararen erabilera erakusten duena, baina batek % 100 esanen dizu, beste batek % 90, hirugarrenak % 80...

Iritzi subjektiboak izaten dira horiek denak, normala den bezala, jaso edo entzuten dugun hori norberaren iragazki pertsonaletik pasatzen baita gero. Eta norberak dituen aurreiritziek, usteek eta desirak ere, askotan, zerikusi handia dute horretan.

Goizuetako kaleetan zenbat euskara entzuten den ziur samar jakiteko modurik onena, beraz, neurketa objektibo bat egitea da. Alegia, kalera atera, belarriak erne, eta entzuten dena jaso.

Ez bost minutuan gure etxe inguruan edo plazan sumatzen ditugun horien elkarrizketak entzunda, baizik eta zenbait ordutan eta herriko kale ezberdinetan entzuten ditugun elkarrizketak guztiak entzunda. Eta, balio estatistikoa izan dezaten, neurtutako elkarrizketa kopuruak gutxieneko kopuru bat gainditu behar du.

Bada, horixe da Euskal Herrian bost urtean behin egiten den kale neurketak egiten duena: metodologia zorrotz batekin kalera atera, eta bertan entzuten dena jaso. Ez bertan entzun nahiko genukeena, baizik eta benetan entzuten dena. Eta kalean dabiltzanei ez zaie galdetzen zein hizkuntza erabiltzen duten, euskaraz edo gaztelaniaz egiten duten, edo beste hizkuntzaren batean. Momentu horretan erabiltzen ari diren hizkuntza zein den jasotzen da, eta gero hortik emaitza jakin bat ateratzen da. Jaso dugun emaitza hori gure gustukoa izanen da edo ez, baina ordu horietan guztietan jaso den errealitatea biltzen du neurketaren emaitzak.

Soziolinguistika klusterrak egiten duen neurketa hori Euskal Herriko hainbat hiri eta herritan egiten da, baita Goizuetan ere. Gurean, UEMAren bitartez bideratuta. Eta horrek argazki zehatz bat erakusten digu. Artikulu honetan, hain zuzen ere, 2021. urtean Goizuetan egindako neurketaren emaitza azalduko dugu.

2021eko kale neurketa

2021eko maiatzean egin zen Goizuetan azkeneko neurketa, egun eta ordu ezberdinetan. 383 elkarrizketa jaso ziren, eta 1.093 solaskide. Akats tarteak +- 3,6koa zen, % 95eko konfiantza mailarekin.

Neurketak egiteko erabiltzen den metodologia horretan adinaren aldagia ere aztertu da. Alegia, Goizuetako kaleetan oro har zenbat euskara entzuten den jasotzeaz gainera, euskara gehien zein adin taldek erabiltzen duen ere begiratu zen, eta bost talde bereizi ziren: haurrak (0-14 urte), gazteak (15-24 urte), heldu gazteak (25-

39 urte), heldu nagusiak (40-64 urte), edo 65 urtetik gorakoak.

2021eko neurketan jasotakoaren arabera, 10 herritarretatik ia 9 inguru dira (% 88,7) Goizuetan kalean euskaraz aritzen direnak, eta 10etik 1 inguru (% 10,3) gaztelaniaz aritzen direnak. Beste hizkuntza batzuetan ari direnak ere badira, eta % 1 da, hain zuzen ere, hizkuntza horietan entzuten dena.

Hau ez da izan, nolanahi ere, Goizuetan egin den lehendabiziko kale neurketa. 2017an ere, esate baterako, eta orduan ere Soziolinguistika Klusterrak eta UEMAk gidatuta, neurketa egin zen. Duela 5 urteko neurketaren arabera euskararen kaleko erabilera % 94,1ekoa izan zen.


Baina badira neurketa zaharragoak ere. Urteetan zehar egin diren neurketa zaharrago horien metodologia aldatuz joan bada ere, eta emaitzetan gorabeheratxo batzuk sumatu badira ere, egindako neurketa guztietan euskararen erabilera % 80tik gorakoa izan da beti Goizuetako kaleetan.

2021eko neurketaren emaitza orokorra eta emaitza zehatzak


2021eko kale neurketa egin zen egun eta orduetan, Goizuetako kaleetan entzundako elkarriketen artean, % 88,7 euskarazkoa izan zen.

Euskara da hizkuntza nagusia adin talde guztietan, bostetik lauk baino gehiagok erabiltzen dute, baina badi-ra ñabardurak adin talde batetik bestera. 2021eko neurketaren arabera, gazteek erabiltzen dute euskara gehien (% 97,4), eta segidan adinekoek (% 94,2). Ondoren, euskararen erabilera haurrak (% 88,2) daude. Helduen taldeetan, heldu gazteak zein adinekoak, pareko ageri dira datuak (% 86,3- eta % 86,7, hurrenez hurren). Beraz, gazteen eta adinekoen artean hamarretik bederatzik baino gehiagok egiten dute euskaraz. Eta haurren zein helduen artean hamarretik zortzik baino gehiagok.

Emaitza orokorra



Emaitza adin-taldeka



Ikusten denez, beraz, eta ez da uste-kabekoa, euskara asko entzuten da Goizuetako kaleetan, euskara da kaleko hizkuntza nagusia. Baina ez da entzuten den bakarra, bistan denez, 10etik bat gaztelaniaz aritzen baita. Erdaldunak daude tartean, jakina, haiek gaztelaniaz egiten baitute, baina baita euskaldunak ere, proportzio txiki batean gertatzen bada ere, euskaldunen artean ere, eta tartean erdaldunik izan gabe, zenbaitetan gaztelania erabiltzen baita.

Erabilera-indizea % 90aren bueltan dago Goizuetan, beraz, eta erabilera indize oso altua dela esan liteke, Goizuetan euskarak duen bizitasunaren adierazgarri. Horrek ez du ezkutatzen, hala ere, gurean ere bistakoa den errealitate bat: euskaldunen artean ere, eta tartean erdaldunik izan gabe,

badago gaztelaniaz egiteko ohitura edo joera. Eta, bestalde, aipatzeko modukoa da haurren arteko erabilera: oso altua da, noski, % 88,2koa baita, baina beste neurketa batzuetan ia % 100ekoa izan zen, eta hor badago kontuan hartzeko moduko aldaketatxo bat. 2017tik hona, hain zuzen ere, hor gertatu da aldaketarik handiena.

Neurketako datuak objektibotzat jo ditzakegu, eta errealitate euskaldun bat erakusten digute, baina egunerokoan jasotzen ari garen beste zantzu eta inpresio batzuk ere ezin ditugu ahaztu, kontuan izan behar ditugu, eta erne egotera bultzatu behar gaituzte, euskarari eusteko eta euskararentzat espazioak irabazteko lan-gintza eta borroka honetan intentsitateari eutsi behar zaiolako, amore eman gabe.



Xalto kantuan, 1960an. Ondoan Arozamena eta Alfonso Irigoien gai-jartzailea. (Arg. Xenpelar Dokumentazio Zentroa).

"Xalto", 1963ko Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean ere, protagonista

Xapoko irakurleek gogoan edukiko duten bezala, Andres Narbarte "Xaltok" eta Batixta Perurena "Karreto"k 1961eko Nafarroako Txapelketako finalaurrean kantatutako hainbat bertso argitaratu genituen iazko zenbakian.

Aurtengoan, eta bi urte aurrera eginez, 1963an Iruñeko Gaiarre antzokian ospatutako txapelketako finalean "Xaltok" botatako bertso onentsuenak eskainiko dizkizuegu. Arotzamenak irabazi zuen final hura, eta Narbarte bigarren egin zuen.

Hain zuzen Arotzamenak eta Narbarte elkarrekin kantatu zuten aurreneko saioan. Lesakarra etxe atariko zakurra zen eta goizuetarra lapurra. Hona hemen “Xalto”ren bertso bat:

Berai egia aitortuta re
bate etzait inportikan
lapur lixtoak beñe ezpaitu
txakurraren beldurrikan
ni izutzetik gaurko onetan
asi zera alperrikan
atean zaunkaz asitzen bada
sartuko naiz leiotikan

Zortziko handian egindakoan, puntuko lanari ekin zioten biek.

Arotzamena:

Alde batetik txakurra
lapurra bestia

Narbarte:

Biek e elkarrentzat
etsaiak ez dia

Arotzamena:

Zu aiton zarra zaude
ni berriz gaztia

Narbarte:

Alare kostako zaizu
niri irabaztia

Narbarte:

Txapela eraman ezetz
gaur Arotzamenak

Arotzamena:

Aurretik zertan jarri
hainbesteko penak

Narbarte:

Zu zarela txarrena
esan dute denak

Arotzamena:

Irabazi dezala
merezi duenak

Bakarkako lanaren txandan baso bat eman zion eskura Alfontso Irigoien gaijartzaileak Narbarteri eta honelaxe kantatu zuen Txemeneko semeak:

Laster esango dizute Andresek
baso aundi horren bizitza
bertsolariak gaur Iruña ontan
legoturikan gabilta
siñistatu dezazun Alfontso
gaurko Andresen itza
nigana etzendun zuk ekarriko
betea egon balitza

Ardo beltzaren gradukorikan
ezta ezerre munduan
nik txikitatik urari nasta
asko edaten bai nuan
onek betea Narbartentzako
basoa izan bazuan
oraingo bertsoa bañan ohea
aurki kantatuko nuan

Finalean kantatzen hasitako 9 bertsolarietatik Narbarte eta Arotzamenak jaso zituzten puntu gehien aurreneko fasean. Beraz, berriz ere biek elkarrekin ekin zioten lanari txapela buruan zeinek eraman erabakitzeke. Gaietako bat hauxe izan zen: Arotzamena kontrabandista eta “Xalto” Frantziara pasatu nahi duen “portugesak”.

Arotzamena:

Alaitasuna agertutzen du
gizona onen barrenak
etzaizka burura etorritzen
bere andrearen penak
lenago ere ikusi ditut
nik orrelako kirtanak
Españin gelditu behar dute
dirurik ez daukatenak


Narbarte:

Nik diru faltik ez daukat bañan
ara pasatu eziña
kontrabandistari igarri diot
ez dala gizona piña
eskuñeko boltsean badaukat
nik zu ordaintzeko diña
obe zenduke portugesak au
bezin aberats baziña

Esana gelditu den bezala, Arotzamenak irabazi zuen txapela 1963ko finalean. Azken agurrean herritar gehienek buruz dakiten 9 puntuko bertso hau bota zuen Xaltok:


Zerbait esan nai nuke
nire gogotikan
gure izkera gaxo
onengatikan
auxe ikasi gendun
txikiangatikan
orduan ez genduan
bera besterikan
ezta izkuntzikan
onelakorikan
emen dagonikan
au bezin onikan
ez utzi galdutzero
euskerarikan
ez utzi galdutzero
euskerarikan

Xalto





atzera begira



Goizuetatik mundura

Arg.: Eli Apezetxea

Goizueta Xabier Amurizaren begietatik

Xabier Amuriza Arrano Beltz bihurtu zen astero Egin egunkariaren orrietan. Bada, arrano horrek horrelaxe deskubritu zuen gure herria 1980ko abuztuaren 19an argitaratutako artikulu eder honetan.

Goizuetatik mundura

Arrano beltzaren azken hegaldietako bat Goizuetara izanda, Herri horretara doanak burua zuhaitzez, mendiarrez, ibaiz eta freskuraz beterik ekarri

behar. Hernanitik hogeita bost kilometro eta handik Leitzara beste hogeituela, badirudi Goizuetan independentzia deklaratz gero, inor ez dela gerlara joango. Baina joanak daude. Koartel ongi betea dute eta ez dago



inork jakin gabe independentzia deklaratzeko arriskurik. Oraindik behintzat, zeren Goizuetan edozer gerta bai liteke, lur haiek eta sustrai haiek sorberrien indar leherkorra baitaramate barnean. Hori ematen du bederen.

—Aizu, nola sortua da herri hau hemen?

—Nola sortuko zen, bada? Mundua hementxe hasi zen eta hortik gorako berriak ez dakigu.

Arrano beltzak aintzinako ostatu edo benta herriren bat zela entzun zuen. Baina norbaitek laster hori burutik kendu zion:

—Ostatuak atzo goizeko kontuak dituk. Goizueta bazen zaldirik eta gurdirik asmatu aurretik.

Zaldirik asmatu aurretik zaila izango da, baina zaldiak gurdiei lotzen ikasi aurretik esan nahi zuen. Bai alajaina. Goizueta Erdi Aroko joan-etorri horiek baino askoz aurreragokoa duzu. Inguruko mendi eta basoei begiratuz, artzain herria izango zen noizbait, nahizta orain ere horretatik zerbait baino gehiago baduen.

—Hori ere atzo goizeko kontua duk —esan zuen batek— Goizueta bazen gizona ardien lagun egin aurretik.

Badirudi artzantzaren aurretik Goizuetan gora eta behera ehiztariak zebiltzala, nahizta gaur ere horretatik zerbait baino gehiago baduen. Ehiztariaren garai hartan ehizeak eta basa piztiak goitik behera uxatzen omen zituzten eta Urumea ibaiaren alboetan bil erazi. Animaliak ur aldean zirenetik, goitik orduan hasten zen inguraketa. Ehun mila burutatik dozenaren bat etortzen bazen, bazuten goizuetarrek astebeterako jana. Astea luzea izaki, hura aseguratuz gero, zertarako hurrengo asterako prebenitu, erdiak aste barnean hiltzen baitziren. Baina erdiak baino gehiago jaiotzen ziren eta populazioa gora eta gora zihoan. Bestela nola zitekeen mundua Goizuetatik zabaltzea?



**Baina mesedez,
Goizuetan behera edo
gora noizbait baldin
bazoaz, behin bederen
zoaz astiro eta poliki.
Bigarrenaz pasatzeko
gogorik ez baduzu,
egizu sikiatrikotik
buelta bat. Gaizki
zaude.**

—Ehiztariaren kontuak atzo goizekoak ez, baina herenegun ilunabarrekoak dituk. Goizueta bazen piztien atzetik hasi aurretik.

Izan ere oraindik ez zen gizakirik. Munduan ez zen piztia besterik. Piztiak eta zer gehiago? Zuhaitzak, handiak eta luzeak, orduan denbora ere luzeagoa baitzen.

—Horiek herenegungo kontuak dituk, mutil. Goizueta bazen piztiak mendiz mendi hasi aurretik.

Goizuetatik etxeak, gizonak eta animaliak kendu genituen eta urak, zuhaitzak, mendiak eta txoriak bakarrik gelditu ziren. Zuhaitzak ere kendu genituen, ez baitzuten beren txioketaz Goizuetaren sorrerarik entzuten uzten. Orduan uren hotsa gelditu zen eta bura ere kendu genituen. Orduan hurrengoak nabarmendu ziren. Bura ere isil erazi genituen eta orduan Goizuetaren oinarri hain hiki eta lodien erdian gora eta bura Goizuetatik joan. Jende ugaria, asperrak, asperkaitza, bala egoten dakiena ere. Nafarroako erresuma zaharrean hiriburu berria egiten dagoen, Goizuetan jarri behar dugu ostalerrira Gipuzkoaren tratatzeko.

Baina mesedez, Goizuetan behera edo gora noizbait baldin bazoaz, behin bederen zoaz astiro eta poliki. Bigarrenaz pasatzeko gogorik ez baduzu, egizu sikiatrikotik buelta bat. Gaizki zaude.

EZETZ ASMATU

XAPO aldizkariko *Ezetz asmatu!* atalean, argazkietan agertzen direnak nor diren asmatzeko lana ematen dizuegu. Lan zailak jarri izan ditugu batzuetan, errazagoak besteetan. Oraingoan ere, ikusiko duzuen moduan, irudi batzuk zaharagoak dira eta, horrenbestez, asmatzea zailxeago, eta beste irudi batzuk berriagoak. Berriagoek ere, nolana ere, urteak aurrera joan ahala etengabe aldatzen goazela ikusteko balio dute. Hortxe dituzue irudiak, ea agertzen diren guztiak asmatzen dituzuen!



ezet zsmatu





ZURE TXANDA

IXABEL ETXEBERRIA



Sukaldaritza... afizio edo ofizio?

Nerea ofizioa ez da izan, berez, etxeko andre izanta... Sukaldaritza beti gustukoa izan dut eta afizioa ondoren sortu zitzaidan.

Nola hasi zinen eskolako jangelan lanean?

Maritxo Torrekok erretiroa hartu zuenean, eskolaren eskutik enkantea egin zen eta 8 bat emakume aurkeztu ginen. Bi azterketaren ondoren... ni aukeratu ninduten.

Zenbat umerentzat prestatzen zenuen janaria? Nere garaian 35-45 inguru izaten ziren.

Zein da zure plater izarra? Eskolan ere bai?

Paella esango nuke eta eskolan kroketak, oso gustukoak zituzten!

Elikatzeko modua aldatu al da zu hasi zinenetik?

Nik Maritxok egiten zuen bezala egiten hasi nintzen. Menuak neronek prestatzen nituen eta eskolak onartu! Bi plater eta postrea prestatzen nituen. Azkeneko urtetan kontrolatuago zegoen dena. Plater bakoitzetik ratio bat jaso egiten zen, izoztu ondoren analizatzeko.

Gaur egun, alergiak, intolerantziak, zeliakoak... Eragin handia al du janaria prestatzerakoan?

1990. urtean ez zen horrelakorikan! Ez alergiak, deus ez... Urteak pasatu ahala intolerantziak zituzten 4 edo 5 haur izan nituen.

Jangelan, inprobisaziorako lekuri bai al da?

Nere kasuan bai. Askatasun osoa nuen.

Ze tresna zenituen jangelan etxean ez zenituenak?

Patata zuritu eta txikitzeko tresna, ontzi garbigailua, baporeta grifo industrialia...

Jaten ez zen janariarekin zer egiten zen?

Hasieran deus ez! Eta azkeneko urteetan bertako familia bati ematen nion, beraiek aprotzeko!

Ze plater izango zen, zure ustetan, denak prestatzen jakin beharko genukeena?

Neretzat, jateko garrantzitsuena eltzekoa da, orduan, nahiz gazteentzat, nahiz helduentzat! Eltzekoa esango nuke.

GARBINE ETXEGIA



Sukaldaritza... afizio edo ofizio?

Biak. Beti gustatu izan zait sukaldean saltsan ibiltzea. Errezeta berriak probatuz!

Nola hasi zinen eskolako jangelan lanean?

Ixabelek erretiroa hartu zuenean, enkantera atera zen lanpostua. Enpresa baten eskutik joan zen kontratazioa, curriculumak aurkeztu genituen 20 bat lagunek eta ni aukeratu ninduten. Ikasketak badituz honen gainen eta esperientzia ere bai.

Zenbat umerentzat prestatzen duzu janaria?

Egunero pasatzen didate zerrenda zenbat izango diren bazkaltzeko, baina normalean 25tik 30era bitarte izaten dira.

Zein da zure plater izarra? Eskolan ere bai?

Nik esango nuke mingaina saltsan, eskolan berriz patata tortilla.

Elikatzeko modua aldatu al da, zu hasi zinenetik?

Asko aldatu da. Ekologikoa asko jaten da... integrala ere bai, haragi gutxi..., astean behin arrain freskoa jaten da. Ume bakoitzeko janariaren pisua eta kantidadea kontrolatua dago.

Gaur egun, alergiak, intolerantziak, zeliakoak... Eragin handia al du janaria prestatzeko moduan?

Bai, oso handia, nere ustez horregatik dago hain kontrolatua elikadura eta prestatzeko modua. Ni hasi nintzenean 7 edo horrela zeuden, orain, berriz, bi.

Jangelan... inprobisaziorako lekuri bai al da?

Nere kasuan, ez.

Ze tresna dituzu jangelan, etxean ez dituzunak?

Patata zuritzekoa, garbigailu antzekoa da, kantidadea handiak egiteko! Iturria... mugikorra dela!

Jaten ez den janariarekin zer egiten da?

Oso markatua dago, gutxi sobratzen da. Ratio bat, gainera, izoztu egiten da bi astez edo horrela, albaitariak analizatzeko eramaten du! Baina sobratzen dena baserritar bati ematen diot, aziendantzat! Eta gordina, berriz, konpostarako joaten da.

Ze plater izango zen, zure ustetan, denak prestatzen jakin beharko genukeena?

Neretzeko eltzekoa izango zen. Entsalada bat eta eltzekoa... Otordu bikaina eta osasuntsua!